

ORDIZIA ▶

Jubilatuentzat hitzaldia izango da astelehenean

Osasunari buruzko hitzaldi zikloaren barruan, Udalak, *Bihotza: bizitzaren motore* hitzaldia antolatu du astelehenean 18:00etan, Jose Luis Martinek. Gure motore nagusiaren egitura eta funtzio-namendua ezagutzeko da hitzaldiaren helburu nagusia.

ORDIZIA ▶

Berdintasunaren aldeko ipuin kontaketa

Udalak antolatuturik, Urdaneta eta Jakintza ikastetxeetako 8 eta 10 urte bitarteko haurrentzat, Apika taldearen *Klik-klak* ipuin kontaketa izango da, asteartean, hilak 4. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatu nahi da saio honekin.

ORDIZIA ▶

Altartek gaur batzar orokorra egingo du

Altamiran zabaldu duten Altartek elkarte berriko kideek gaur goizeko 11:00etan batzar orokorra egingo dute. Gaur goizean erakusketa ez da zabalik izango.

SEGURA ▶

Zuhaitz eguna ospatuko da gaur arratsaldean

Aitz-lehor guraso elkarteak eta Udalak deituta, gaur, 16:00etan, plazan dago hitzordu jarrita, Zuhaitz egunean parte hartzeko. 25 haritz landatuko dituzte hilerri inguruan. Aitzurrarekin azaltzeko deia egin dute.

ORDIZIA ▶ GIZARTEA

Plenoak ez du onartu Oiangu Parkea Bizirik elkartearen mozioa

Oianguren ustiaketakarako kontzesioa bertan behera uztea eta herritarren partehartzea eskatzen du plataformak



Bi orduko eztabaida izan zen plataformakoen eta udal ordezkarien artean. LOINAZ AGIRRE

LOINAZ AGIRRE

Udal ordezkarien eta Oiangu Parkea Bizirik elkarte kideen arteko bi orduko eztabaidaren ondoren, Udaltzatzak aho batez erabaki zuen Natur Elkartearen mozioa atzera botatzeko. EAko 4 zinegotziren, EAko hiruren eta PSEko baten botoak izan zituen aurka.

Udalak, Oiangu Parkearen ustiaketakarako onartu duen kontzesioa eta kontratua bertan behera uztea eskatzen du Natur Elkartek eta «herriko eragile guztiekin batera, Oiangu babestuko duen eta Oian-

guz inolako bazterketarik gabe, modu publiko eta arduratsuan, disfrutatzea aukera emango digun egitasmo berri bat prestatzeko eta burutzeko elkarlanari» ekitea eskatzen du Oiangu Parkea Bizirik taldearen mozioak. Izan ere, beraien ustez hainbat arrazoi badira hori eskatzeko. «Batetik, egitasmoak parkearen erabilera publiko, libre eta doakoa murrizten duelako; bestetik, egitasmoak parkearen oreka ekologikoan eta aberastasunean eragin larria eduki dezakeelako; eta halako ondorioak dituen egitasmoa ordiziarron

inolako parte hartzerik gabe erabaki delako».

Horrekin batera, egitasmoa burutzeko eraman den prozesuan hainbat hutsegite eta akats eman direla uste dute. Eta azkenik, Arartekoak 2006ko otsailaren 2an kontratua baliogabetzeko egindako gomendioa kontuan hartzeko eskatu zien udal ordezkari, «beraiek, Parlamentuak sortutako eta onartutako figura» dela kontuan izanda.

Alejandra Iturrioz alkateak hartu zuen hitza jarraian. Arartekoaren gomendioaren inguruan, «Arartekoak egiten duen

PLAN BEREZIA

«Plan Berezia publiko egingo da eta orduan izango dute herritarrek iritzia emateko aukera»

PRIBATU ALA PUBLIKO

Oiangu Parkearen izaera publikoa defendatu zuen elkarteak osoko bilkuran herenegun

legearen interpretazioarekin» bat ez datozela eta, kontzesioak bere horretan jarraituko zuela esan zuen.

Herri kontsulta

Herritarren partaidetzari dagokionean, «Plan Berezia eta Ingurumen Txostena publiko egingo dira eta orduan izango dugu herritarren iritzia jasotzeko aukera. Ez daukagu inongo oztoporik iritziak jasotzeko», esan zuen alkateak. Horrekin batera, Plan Berezia, plataformakoen eta herritarrek, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu baino lehenago jasoko dutela hitz eman zuen behin eta berriz. Momentu honetan, Plan Berezia, udal teknikarien eta kanpoko aholkularien eskutan dago.

Julen Agirre, Ordiziarrak Gera plataformako kideak ondokoa eskatu zien udal ordezkari: Plan Bereziaz beste aditu batzuen, adibidez, Arantzadi Zientzia Elkartearen iritzia ere kaleratzea, herritarrek beraien jarrera har dezaten. Herritarrek aipatuta, eta herritarren iritzia jakiteko, herri kontsulta egiteko eskatu zuen Julen Agirre. «Legeak dioen biztanleriaren %15aren sinadurak bilduz gero (1.050) egingo al zenuen herri kontsulta egitea?», galdetu zuen Agirrek. «Ez dugu kontenplatu», erantzun zien Manolo Iturrioz EAko kideak.

Pribatu-publiko gaiak ere eztabaida sortu zen plataformako kideen eta politikoen artean. EAko Joxe Arizmendik aipatzen zuenez, Ingurumen Txostena ere oso kontuan hartzekoa da. «Gaur egun parkearena den zati bat ere pribatua da. Gaur egun erabilpenarekin, ezin da nahi den lekuan ibili. Ingurumena aipatzen duzue, baina 20 urteotan eman zaion erabilpena, agresiboa izan da. Plan Bereziaz zehaztuko du lkenaren proiektua onargarria den ala ez». «Planak Onargarria dela ez badio?», galdetu zuten plataformakoen.